



Kontingentzia plana

(Prebentzio eta higiene neurriak)

[“Covid-19ren aurrean, Laneko arriskuaren prebentziorako neurriak”](#) dokumentua erreferentziatzen hartuta.

KONTUTAN IZAN BEHARREKOA	PROZEDURA / JARRAIBIDEAK
1. Langileentzako eta ikasleentzako prebentzio-neurri orokorrak	<ul style="list-style-type: none">○ Orokorrean, 1,5 m. kodistantzia mantenduko da lagun artean.○ Segurtasun distantzia hori ezinezkoa denean, maskara erabiliko da. Ikasle bakoitzak ekarriko du berea.○ Gela bakoitzean eskuak garbitzeko 70 graduko alkohola egongo da.○ Aurrez aurreko irakaskuntza bermatuko zaie ikasle guztiei. Ikasleen zati baten bertaratzea lehenetsi beharko balitz (pandemiaren 2. eta/edo 3. agertokiara igarotzeko beharragatik), hasierako maila dutenek izango dute lehentasuna.○ Eskolara egunero bertaratzen diren lagun guztiek ondoko sintomen agerpena zaindu beharko dutela: 37 gradutik gorako sukarra, eztulidorra, eztarriko mina, arnasa hartzeko zailtasuna, usainik edo dastamenik ez izatea. Horrelakorik sumatuz gero, etxean gelditu eta bere osasun-zentrorra deitu beharko dute.

<p>2. Langile edo ikasle sintomatikoa edo kasu batekiko kontaktu estua</p>	<ul style="list-style-type: none"> ○ Covid-19arekin bateragarriak diren sintomak dituzten ikasle edo langileak ez dira ikastetxera bertaratuko. ○ Beren etxeko norbaitek Covid-19aren diagnostikoa jaso badu, gurasoek edo tutoreek horren berri emngo diete eskolako agintariei . ○ Gaitzaren sintomak antzemanezgero (sukarra, eztula, arnasa hartzeko zailtasuna,...), eskolak seme-alaba jasotzea eskatuko dio familiari. Familiak osasun-zentrora deitu beharko du. ○ -Gaitzaren sintomak eskolako langileren batean agertuko balira, honek eskola utzi eta etxera joango da. ○ Ikasle, irakasle edo langileren batek Covid-19n positiboa emanez gero, kontaktutzat hartuko da gainerako ikasgela edo taldea eta etxeko berrogeialdia egin beharko du 14 egunez, azken kontaktua izan den egunetik zenbatzen hasita. Osasunsailaren SARS-Covkoronabirusa zaintzeko protokoloari jarraituko zaio (https://www.euskadi.eus/covid-19-koronabirus-berriaren-protokoloak/web01-a2korona/eu/) eta zaintza epidemiologikoko unitatea izango da.
<p>3. Segurtasun distantzia</p>	<ul style="list-style-type: none"> ○ Ikastetxeetan sartzekoan egingo den kontrola. ○ Lan-espazioak berrikustea: ikasgelak, tailerrak, liburutegia, kirol guneak, jantokia... lan espazioen banaketa. ○ HPBko ikasleen batek bere ezaugarriengatik trataera berezirik behar badu espazioak mugatuko dira soka edo antzekoekin.
<p>4. Babes ekipamenduak NBE</p>	<ul style="list-style-type: none"> ○ HPBko ikasleen kasuan segurtasun distantzia ezin denean mantendu, irakasleentzat eta hezkuntza langileentzat babes ekipoeekin hornituko dira. Ikasleen garbitasun pertsonalean eskularruak eta maskaraerabili. Eta ikasgela ere sakon garbitu beharko da.

<p>5. Instalazioak eta ekipoak garbitzea</p>	<ul style="list-style-type: none"> ○ -Arreta bereziko espazioetan (irakasle gela, informatika gela, teknologia gela, plastika gela, liburutegia, gimnasioa, komunak,...) eta objektuekin (argi-giltzak, ate eta koheldulekuak, barandak,... higiene neurriak areagotu.
<p>6. Neurri osagarriak</p>	<p>Maskarak</p> <ul style="list-style-type: none"> ○ 1,5 metroko distantzia bermatzea ezinezkoa denean erabili beharko da eta eskola-garraio kolektiboan. ○ Ikastetxeak maskarak izango ditu (Baten batek ekartzen ez duenerako) eta bere erabilera zuzena azalduko da.
	<p>Eskuak garbitzea</p> <ul style="list-style-type: none"> ○ 70 graduko alkohola egongo da gela, tailer, mintegi, jantoki... guztietan
<p>7. Kanpotik bisitak</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Gurasoak, hornitzaileak edo beste agenteak ikastetxera datozenean, maskararekin sartu beharko dira eta atezaintzan zain egon bidea eman arte.